

Martin McGuinness, Sinn Feineko zuzendaritzako kidea

«Nazioarteko presioak negoziatzera behartu dezake Londres»

1 972an Armada britainiarraren abioian Ingalaterrara Londresko Gobernuarekin negoziatzera joandako IRAren ordezkarietako bat izan zen Martin McGuinness. Urte asko egin ditu, beraz, mugimendu errepublikarraren zuzendaritzan. Urtetan IRAko buruzagia izan dela diote kazetariak eta, gaur egun, Sinn Feineko zuzendaritzako bigarrena da.

IRAk su-etena iragarri zuenean prozesuaren erritmoa bain geldoa izango zela jakin izan bazenu, berdin sostengatuko al zenukeen IRAren erabaki bura?

Noski. IRAren erabakiarekin ados nago. IRAren erabakia zentzuzkoa izan zen eta bake prozesua sendotu egin zuen. Urte honetan izan dugun esperientziak erakutsi du alderdi nazionalista guztiak bake negoziaketetarako prest gaudela, eta munduari modu argian erakutsi diogu hori. Bestalde, urte honek erakutsi du britainiarrak eta unionistak ez daudela prest mahaian gurekin esertzeko. Honen ondorioz, nazioarteko komunitatean jendeak egin dezake bere juzkua eta erabaki zein ari den benetan bake akordioaren alde la-

nean, eta zein ez. Bake prozesua atzeratzeko eta aitazkiak bilatzeko estrategiarekin, nazioarteko komunitateak, bai Britainia Handian eta bai Irlandan, britainiarren jokaerari buruzko iritzia gero eta txarragoa dela pentsatzen dut.

Elkarrizketak has daitezzen IRAk armak entregatzen hasi behar duela dio Gobernu britainiarrak, eta IRAk ez du horretarako asmorik. Nola gaindi daiteke hau?

Orain armen dekomisioa baldintza gisa jartzeak britainiarren fede txarra erakusten du. Jendeak ulertu

behar du su-etenen aurreko elkarrizketetan sekula ez zela aipatu armen dekomisioaren gaia. Nik neuk parte hartu nuen elkarrizketa haietan, eta inoiz inork ez zuen mahairatu IRAren armen errendizioaren gaia. Dublinen aldetik elkarrizketetan parte hartu zutenek, Albert Reynoldsek kasu, egiaztatu egin dute hori horrela dela. Errealitatetik kanpo dagoen eskakizuna da hori. Ez dut uste batere posibilitaterik dagoenik IRA elkarrizketen aurretik armak entregatzen hasteko. Hau nola gaindi daitekeen? Britainiarrek jarri dute aurre-

baldintza berri hau, eta berriek kendu behar dute. Ez dago beste biderik.

Gobernu britainiarraren jarrera da, beraz, oztopo nagusia. Aldatuko al dute jarrera hori?

Ez dago jakiterik. Batzuetan badut horren esperantza, eta bestetan ez. Irailaren hasieran John Brutonek eta John Majorrek egingo duten gailurrera begira izango da jende asko, bi gobernuak bake negoziaketetarako aurrerapausoak emateko prest dauden ikusteko. Bake prozesuak Irlandan, Britainia Handian eta nazioartean duen sostenguak esperantza handia ematen dit. Nire sentsazioa da jende honek guztiak Gobernu britainiarrarekiko presioa handitzen bado, azkenean britainiarrek eta unionistek ezingo dietela euren jarrerari eutsi eta nazioarteko iritzia negoziazio mahaira eramango dituela.

Bill Clintonek azaroaren bukaeran Irlandara egingo duen bisitaldiak eragin handia izango duela uste duzu?

«Su-eteneko urte honetan IRAk erakutsi du oso batua dagoela eta gainera oso diziplinatua dela»

Bill Clintonek alderdi guztien arteko elkarrizketen hasteko eta presoak askatzen hasteko jarrera agertzeari, dudarik gabe, areagotu egingo du Majorren Gobernuarekiko presioa, negoziaketei begira aurrerapausoak eman ditzan.

Alderdien arteko elkarrizketak hasi gabe daude, baina Gobernu britainiarrarekiko ordezkariekin hainbat bilera egin dituzue. Fruturik eman al dute?

Gobernu britainiarrarekin izandako hiru bilera pribatuetan, eta aurretik nik neuk Ancramekin izandako elkarrizketetan, bake negoziatzeetan aurrera egin ahal izateko ikusten ditugun zailtasun eta arazoei buruz hitz egin dugu. Orain Gobernu britainiarraren kontua da adierazi diogun guztia aztertu eta alderdi guztien arteko elkarrizketak deituko dituen ala ez erabakitzea. Baina gauza bat esan nahiko nuke: su-etenaren urteurrenaren atarian gauden honetan, Londresek alderdi guztien arteko elkarrizketak izango ditugula publikoki adierazteari uko egiten badiot, izugarri egoera arriskutsuan sartuko ginagake.

Su-etena apurtzeko arriskuan izango litza-tekeela esan nahi duzu?

Espekulaziotan ez sartzea hobe dela uste dut. Su-eteneko urte honetan IRAk erakutsi du oso batua dagoela eta oso diziplinatua dela. Su-etenak bi aste, hilabete, hiru hilabete edo sei hilabete baino ez zuela iraungo zioten aurrikuspenen ondoan, IRAk pazientzia handia eta bake prozesuarekiko atxikimendu osoa erakutsi du. IRA, nire ustez, oso inteligentea da eta ikusi du



Gerry Adamsen ondoren, mugimendu errepublikarrean eragin handiena duen pertsona da Martin McGuinness. (Arg: Humberto Unzueta).

Gobernu britainiarra eta unionistak nazioarteko komunitatean bakartuta geratu direla. Zentzu honetan, IRAren pazientziak sendotu egin du bake prozesua, eta su-etenaren urteurrenarekin, Gobernu britainiarrarengan presioa handitzea da behar duguna, negoziaketak has daitezen.

Eta basten ez badira?

Ez dakit IRAren estrategia zein izango den hau gertatzen ez bada. Sinn Fein eta IRA erakunde bereziak dira. Guk gure zeregina daukagu

prozesuan: gatazkarekin zerikusia duten alde guztiak negoziaketa mahaira eramaten saiatzea. Dena den, Sinn Feinek zentzu honetan egin duen lan guztiari lagundu egin dio IRAk su-etena iragartzeak. Baina esan behar dut, Gobernu britainiarrak eta unionistek bake negoziaketak hasteari uko egingez gero, familia errepublikar-nazionalista zabaleko jende askok ulertuko du jende horrek ez duela bakerako borondatearik.

Bake prozesu honetan

«Orain arte, bake prozesuari buruz Sinn Feinek egin dituen analisiak onartu egin ditu IRAk»

eta mugimendu errepublikarraren barruan, zein da Sinn Feinen zeregina, eta zein IRArena?

Sinn Feinek zuzendaritza nazionala du eta bertan, astero, prozesu politikoaren gorabeherak aztertu eta gure erabakiak hartzen ditugu. Ziur nago IRAk, modu independentean, azterten duela bake prozesuan gertatzen ari dena. Bere eztabadaida propioak dituela suposatzen dut, eta bere erabaki propioak hartzen dituela bake prozesua bultzatzeko. Sinn Feinen lidergoak bere erabakiak hartzen ditu eta modu publikoan jakinarazten ditu. Eta IRAk eskubidea du Sinn Feinen azterketak onartu edo baztertzeko. Eta orain arte, bake prozesuari buruz Sinn Feinek egin dituen analisiak onartzea erabaki du IRAk.

Presazkoa al da une honetan presoekin?

Munduko bake prozesu guztietan presoekin askatzea funtsezkoa izan da prozesuan konfiantza sortzeko. Dublingo Gobernuak hori ulertu du eta hainbat preso askatu ditu, eta Gobernu britainiarrak gauza bera egin behar du. Guk preso guztiak orain bertan nahi genituzke kalean, baina badakigu britainiarrek ez dutela hori onartu. Beraz, gure jarrera da elkarrizketa mahaiari aztertu behar dugula gaia, mahaiari aztertu behar diren beste hainbat gaiekin batera. Ez dugu presoekin askatzea negoziaketarako aurrerabaldintza gisa jartzen. Gure iritziz, eta presoekin iritziz ere bai, orain inportanteena alderdi guztien arteko elkarrizketak hastea da.

Demagun elkarrizketak hastear daudela. Unionistek parte hartuko du-

tela uste al duzu?

Gobernu britainiarrek Dublingoarekin bat egin eta alderdi guztien arteko elkarrizketak deitzen dituenean, unionistek hasieran parte hartzeari uko egingo diotela uste dugu. Baina azkenean jarrera eutsiezina bihurtuko da eta, Butelezik Hego Afrikaz egin behar izan zuen bezala, negoziaketa mahaira etorri beharra izango dute.

Zein proposamen eramanango ditu Sinn Feinek negoziaketa mahaira?

Negoiazio mahaira joaten garenean, egitasmo errepublikarrekin joango gara. Alderdi errepublikar irlandarra gara, eta britainiarrekiko menpekotasunak amaitu egin behar duela eta Irlandak estatu batua izan behar duela uste dugu.

Baina Irlandako herritarrek egitura federala, konfederala edo beste era batekoa nahi badute, hori irlandarrek erabakitzeko kontua da. Irlandarrek erabakitzen dutena onartu egingo dugu, nahiz eta ados egon ez, baina onartu ezin duguna britainiarrekiko



Bake negoziaketak hasiz gero unionistek parte hartu beste erremediorik ez dutela izango uste du Martin McGuinness. (A.: Humberto Unzueta).

menpekotasuna da.

Azken erabakia irlandarrek, baina berezita, bartu behar dutela dio SDLPk. Alegia, erreferendum bat Ipar Irlandan eta beste bat Hego Irlandan, denei galdera bera eginez. Onartuko al

zenukete bide hori?

Guztiok eztabaidatu behar dugu azken akordioa irlandarren esku nola utzi. Gure jarrera argia da: autodeterminazioa nahi dugu irla honetako herri osoarentzat. Ez dugu onartzen iparraldera mugatzen den barne akordiorik. Iparraldeko herritarrek beste irlandarregandik berezita bozkatuko lukeen edozein akordio oso kontu handiz aztertu beharko litzateke. Oraingoz, ez dugu

erabaki gure estrategia honi guztiari buruz. Gatazkaren konponbide demokratikoa behar dugu, eta irla honetako unitate demokratiko bakarra Irlandako 32 konderriek osatzen dute. Irlandako herri osoak hartu behar ditu erabakiak, eta zati-keta indartuko lukeen erreferenduma egiteko britainiarren ezein ahalegin onartezina izango da guretzat.

IMANOL MURUA URIA

«Londresen elkarrizketak izango ditugula publikoki adieraziko ez balu, oso egoera arriskutsuan sartuko ginateke»

**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

ANTZA
Maisuen Eskutik

**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

Zirkuitu ibilbidea, 1 eta 2 ☎ 37 15 45 - Faxa 37 34 03 • Lasarte Oria 20.160